



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/08/02

## **Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe eraso matxistaren aurrean Bilboko Udalak erakutsi dauen gaitzespen eta haserre adierazpenagaz**

Bizkaiko Batzar Nagusiek euren gaitzespen gogorrena erakutsi dabe 18 urteko emakume batek gaur gauean Bilbon jasan dauen eraso matxistea dala eta. Batzarretako talde guztiek bat egin dabe Bilboko Udalak erakutsi dauen gaitzespen eta haserre adierazpenagaz, eta indarkeria matxistaren adierazpen guztien aurreko gaitzespena erakutsi dabe. Eraso barri hori biktimaren sexu askatasunaren kontrako atentatua da, baina baita alkarregaz askatasunean bizitzearen kontrako bortxaketa onartuezina eta giza eskubide guztien urraketa larria be.

Holango ekintzek ez daukie lekurik gure gizartean. Gure gizarteak indarkeria matxista barik, askatasunean, bizi gura dau, emakumeek ez daien eraso jasateko bildurrik izan, gizonen eta emakumeen arteko errespetuzko bizikidetzan. Batzar Nagusiek kontzentrazinoetan parte hartzeko eta emakumeen kontrako edozein indarkeria adierazpenaren kontra modu aktiboan agertzeko deia egiten deutsee herritarrei.

Batzar Nagusiek euren laguntzea eta alkartasuna adierazo gura deutesie biktimari, eta eraso matxistarik bako Bizkaia lortzeko beharrean jarraitzeko konpromisoa erakutsi, gizonen eta emakumeen arteko bardintasun eta errespetu politikak bultzatuz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

02/08/2019

## **Las Juntas Generales de Bizkaia se suman a la declaración de condena e indignación del Ayuntamiento de Bilbao por la agresión machista**

Las Juntas Generales de Bizkaia expresan su más enérgico rechazo a la agresión machista sufrida por una mujer de 18 años esta pasada noche en Bilbao. Todos los grupos junteros se suman a la declaración de máxima condena y profunda indignación del Ayuntamiento de Bilbao y muestran su repulsa a todas las expresiones de violencia machista. Esta nueva agresión supone un atentado contra la libertad sexual de la víctima, pero también una intolerable violación a la convivencia en libertad y una grave vulneración de todos los derechos humanos.

Este tipo de actos no tienen cabida en nuestra sociedad, que quiere vivir sin violencia machista, con libertad, donde las mujeres no tengan que sentir miedo a ser agredidas y en una convivencia respetuosa entre hombres y mujeres. Las Juntas Generales invitan a la ciudadanía a secundar las concentraciones y a posicionarse activamente contra cualquier expresión de violencia contra las mujeres.

Las Juntas Generales quieren expresar su apoyo y solidaridad con la víctima y se comprometen a seguir trabajando para conseguir una Bizkaia libre de agresiones machistas, fomentando políticas de igualdad y de respeto de los hombres hacia las mujeres.